

KOSTUEN EGITURA

A.O.I.A.

IDEIA: Energia generatzen duen kirol-makina

Edozein proiektu aurrera ateratzeak kostu desberdinak ditu. Gureak dituen kostuak mota desberdinetakoak dira.

Alde batetik, lokal propio bat edukiko dugu gure produktuen esposiziorako. Lokal horrek kostu bat izango du hilerok. Bertan, ordu konkretu batzuetan gutako bat edo gehiago egongo dira bezeroei harrera egiteko eta bestelako lanak egiteko. Horretarako, bi ordenagailu izango ditugu, bakoitzaren kostua ere kontutan hartu beharko dugu. Bertan, telefono bat ere izango dugu, bezeroen, hornitzaileen, etab. deiak jasotzeko. Telefonoak kostu bat izango du. Telefonoak eta internetak (WIFI-a) kostu bat izango dute hilerok.

Beste alde batetik, esposiziorako lokalaz gain makinak fabrikatzeko lokala ere behar dugu eta honen alokairuak kostuak ekarriko dizkigu. Lokalaren barruko argia eta uraren kostua ere izango ditugu.

Makinak sortzeko behar ditugun piezak eta gure fabrikara ekartzeak ere kostu bat izango dute.

Muntaketa prozesuak garraio kostua bakarrik izango du. Hau da, gure makinaren instalazioa egin behar dugun lokal edo etxeetara eramatea.

Azkenik, gure enpresako langileak gu bakarrik izango gara. Eta gutako bakoitzak soldata konkretu bat izango du hasiera batean. Salmentak oso ondo badoaz aurrerago aldaketak egin ditzazkegu eta soldataren balioa igo. Salmentak okerrera joango balira jeisteko aukera ere izango genuke.